


VILLA PILAR**APOSTOLUTZA, 4**

Karlos Ibero, 1905.

Deskribapena

Mende hasierako udaldiko bizitokien ale bikaina, oinarri klasizistakoa fatxadetako lengoaian, harri horma emokatuz erremataturako plano-aldaketetan. T formako oinplanoko ataletako plano bat hiru mailatan gora altxatzen da, bi solairuko aldamenekoa baino gorago alegia, horma piko erako aurrealdea eratzearen beste etxe batzuek dorre batez egiten duten moduan. Egiaz, fatxadako txapitula bat da, bi isurkikoa, oinplanoan irtena den atalean kokatuta dagoela ia-ia horma pikoa dirudiena bera. Itxura pintoreskoa are sendoago ageri da teilatu-hegalen eraikuntzarekin, zuburu guztiek baitaizkate lehen solairuko bao buruen pareraino jaisten diren jabaloi kurboak, ateburu/lehioburuaren gainean geratzen direnak motzagoak direla. Tximiniak eginkizun bera du, harri-horma lakarrezko atala mantentzen du, ertzak emokatuta dauzkala, erlaitz bat du erremate, eta horren gainean irteerak daude, hasiera batean buztin errezko mitraz proiektatutako goiko erremate batez.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: atal irtenak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harri horma eta erliebe emokatuak, teilatu-hegaletako habeak eta zuburuak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.